

# Getxo >MEETING<



## Maiatzak 7

### LinkedIneko zure orria koherentea da helarazi nahi duzunarekin?

Hainbat pertsonaren artean LinkedInen profilak aztertu ditugu besteen laguntzarekin, eta gauza asko aurkitu ditugu. Munduko sare sozial profesional handiena zure negozioa ikusarazteko lekua izan daiteke, baina are gehiago zure enpresa nolabait lan-arloarekin lotutako profiletara zuzentzen bada.

Helburua hemen ez da LinkedIneko profil perfektua. Hemen garrantzitsuena gero eta hobe izatea da, eta gogoeta hauek hobetzen laguntzea.

Lehentasunezko gai batzuk helarazten dizkizugu, zure profila gero eta gehiago izan dadin helarazi nahi duzun horren isla.

- **Zure ikusgarritasuna: ez dago arrazoirik zure profil profesionala zure kontaktuak ez direnek gutxi ikusteko.** Horregatik garrantzitsua da berrikustea profila nolakoa den kanpotik ikusita, hori ikusiko baitu jendeak zurekin harremanetan jarri aurretik. Zurea oso kasu berezia ez bada, onena **informazioa ahalik eta pertsona gehienek ikusi ahal izatea da.** Eta gogoratu zure ordenagailutik ikusten duzuna ez datorrela beti bat gainerakoek ikus dezaketenarekin.
- **Azaldu ondo eskaintzen dituzun zerbitzuak eta norentzat eskaintzen dituzun.** Argi eta garbi dago, ala azken komaraino irakurri behar da zertan aritzen zaren eta zertan lagun diezaiekezun jakiteko? **Zenbat eta lehenago esan zer eskaintzen duzun, orduan eta lehenago ikusiko dute beren beharretarako baliagarria zaren.** Pertsonak diagonalean irakurtzeko joera dute, testuen gaineratik hegan ginez. Ahalik eta lasterren ikusi behar dute benetan zerbait baliagarria dagoen.

- **Zein dira zure interesak? Zein orrialderi jarraitzen diozu? Zein taldetan zaude?** Zuk jarraitzen dituzun orri, talde eta interesak zure profilari begiratzen diotenen ikusteko modukoak dira. Eta zutaz asko esaten dute. **Pentsa ezazu proiektatu nahi duzun irudiarekin koherentea den** edo kirrinka egiten duen zerbaite dagoen.
- **Zerbitzu gehiegi eskaintzen dituzu?** Pentsa ezazu lau zerbitzu desberdin aukera interesgarria dela dagoeneko. Hori baino gehiago eskainiz gero bazar baten itxura har dezake. Interesgarria da hainbeste aldakortasun edo espezializazio erakustea, berdin dio, baina, batez ere, **argi erakutsi behar duzu zer eskaintzen duzun.**
- **Zure profila eguneratu gabe badago,** ez itxaron eguneratzeko behar duzun guztia izan arte (argazki hori, titulu hori, ziurtagiri hori). Zenbat eta lehenago hasi aldatzen, hobe. Eta xehetasun horiek behar den bakoitzean gehitu ditzakezu.

Badakizu, hau ikaskuntza-prozesu bat da; horregatik, askotariko profilak begiratzeak ere lagunduko dizu, zure estilo propioa aurkitzeko. Zuk egiten duzunaren antzekoak, baina baita arrastoak eman diezazkizuten beste sektore batzuetako profesionalak ere.

Eta gogoratu: inoiz ez gutxietsi LinkedInen boterea, ez zuretzat, ez zure negozioarentzat!  
Espero dugu balioko dizula eta oraintxe bertan lanean hasiko zarela.